

URTEKO THOSTENA 2024



em

ESCLEROSIS MÚLTIPLE
BIZKAIA
ADEMBI

40
URTE
AÑOS



www.adembi.org



Adembi



ADEMBIEMEBIZKAIA



Adembi_embizkaia





Ibarrekolanda 17 trasera. 48015 BILBAO



1. ELKARTEA KOPURUTAN

Eugenia Epalza Errehabilitazio Zentroa

ZENTROAN ARTATUTAKO PERTSONEN
KOPURUAREN BILAKAERA




291
EMAKUMEAK

171
GIZONAK

70% ADEMBIKO GAIXOTASUNA DUTEN PERTSONEN %70ek
ELKARTEAK ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZUETARA JO DUTE.

Urizartorre Egoitza

OKUPAZIOA



Información general


+1.600
PERTSONAK JASOTZEN DUTE HILEROKO
INFORMAZIO-BULETINA

+210.000
BISITA BAINO GEHIAGO
WEB-ORRIAK

+200
PERTSONA BOLUNTARIO BAINO GEHIAGO
SENTSIBILIZAZIO-KANPAINETAN

Datu ekonomikoak


GASTUAK 2024



Kanpoko zerbitzuak	399.732,36	%18,27
Langileen gastuak	1.614.681,79	%73,83
Beste kudeaketa-gastu batzuk	89.079,42	%4,07
Gastu Finantziarioak	0,00	%0,00
Amortizazioetarako zuzkidurak	83.283,59	%3,80
GUZTIRA	2.186.777,16	%100

Gure kudeaketa-ereduan erabateko konfiantza sortzeko konpromisoa hartzen dugu, gardentasuna gure lanaren funtsezko zutabe gisa ezarriz. Gure kontuak Gz Consultores Auditores SLk ikuskatu ditu, eta aldeko txostena eman du, salbuespenik gabe. ADEMBIren 2024 urteko kontuak eskuragarri daude gure web-gunean: www.adembi.org/transparencia, kontuak ematearekin eta kudeaketa arduratsuarekin dugun konpromisoa islatuz.

2024 DIRU SARRERAK



Erabiltzaileen kuotak	176.112,75	%8,24
Bazkideen kuotak	100.477,36	%4,70
Ustiapenari emandako dirulaguntza ofizialak	1.795.522,27	%84,08
Dirulaguntza eta dohaintza pribatuak	38.396,01	%1,79
Diru-Sarrera finantzarioak	15.505,20	%0,72
Kudeaketako beste diru -sarrera batzuk	9.353,32	%0,43
GUZTIRA	2.135.366,91	%100

2. ZER DA ESKLEROSI ANIZKOITZA

HETEROGENEOA

"1000 aurpegiko"
gaixotasuna ere
deitzen zaio



NEUROLOGIKOA

Nerbio-bulkadaren
transmisioak huts
egiten du



ASKOTARIKO SINTOMAK eta batzuk aurretik jakin ezin direnak



LAU PERTSONATIK HIRU EMAKUMEAK DIRA



AURREIKUSI EZINA

Bere bilakaera
ezin da ziurtasunez
aurreikusi eta
denborarekin
okerrera egin dezake



PERTSONA NAGUSI GAZTEENGAN AGERTZEN DA

Talde honetan, lehen
kausa da desgaitasun
ez-traumatikoa



EZ DA EZAGUTZEN BERE KAUSA, EZTA SENDABIDEA ERE

Ikerketa eta
zure laguntza
ezinbestekoak dira



ESKLEROSI ANIZKOITZA ZENBAKITAN:



2.500.000

Pertsona munduan
Esklerosi Anizkoitzarekin



770.000

Pertsona Europan
Esklerosi Anizkoitzarekin



2.700etik
gora Euskadin

1.900etik gora
kasu berri urtero
eta Kasu berri bat 5
orduan behin estatuan



**ERREHABILITAZIOAK,
BIZI OHITURA OSASUNGARRIEK**
eta eguneroko bizimoduko inguru-
men-faktore batzuk kontuan hartzeak
eragin positiboa dute bizi-kalitatean



BADIRA
bilakaera, agerraldiak eta sintomak
maneiatzen lagundu dezaketen
TRATAMENDUAK

3. ADEMBI: pertsonetikiko konpromisoa

Esklerosi Anizkoitzaren Bizkaiko Elkarte (ADEMBI), 1984an sortu zen eta irabazi asmorik gabeko antolakundea da. Bere egitekoa Esklerosi Anizkoitza duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzea da.

KALITATEA

ADEMBIk Kudeaketa Aurreratuaren EUSKALIT Eredua ezarri du bere kudeaketa-sistema optimizatzeko tresna estrategikotzat. Eredu hau antolakundearen lehiakortasuna bultzatzeko diseinatuta dago, kudeaketaren bikaintasunaren bidez.


ADEMBIk eredu horren aldeko apustua egin du, erakundeen lehiakortasunean eta jasangarritasunean eragina duten indarguneak eta hobekuntza-arloak identifikatzeko aukera ematen baitu, epe luzerako ikuspegia sortuko duen kudeaketa-sistema egoki bat ezarriz, zehaztutako estrategia baten bidez.

- ISO 9001 ADOK kalitate-ziurtagiria
- Kudeaketa aurreratuaren Brontzezko A aitortpena (EUSKALIT)
- Iraupen luzeko zainketetan pertsonalizatzeko jardunbide egokien aitortpena. BFAko Gizarte Ekintza Saila.





Adembiren organigrama

ADEMBiren Zuzendaritza Batzordea Esklerosi Anizkoitzarekin konprometitutako pertsona talde batek osatzen du.



Pertsonak



Adembiko taldea

2024ko abenduan 54 pertsonak osatzen dute ADEMBiko taldea: 41 emakumek eta 13 gizonak.



Talde profesionalaren %90ek kanpoko prestakuntza espezializatua jaso du, Esklerosi Anizkoitza duten pertsonak laguntzea eta babestea helburu duena, haien gaixotasunaren eguneroko maneia optimizatzeko.



Aliantza estrategikoak daude inguruko unibertsitate eta prestakuntza-zentroekin, eta gizarte-eraldaketari modu aktiboan laguntzen dion **esku-hartzeko eredu propio bat** aitortzea lortzen da. Lankidetzaren bidez, etorkizuneko profesionalak gure misioarekin, ikuspegiarekin eta balioekin ohitzen dira, eta elkar aberasten dute, ADEMBI eta sektore soziosanitarioa indartuz.



Hitzarmenak:

Hitzarmenak: Deustuko Unibertsitatea, UPV/EHU , Salamancako Unibertsitatea, Kataluniako Unibertsitatea, Burgosko Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Valentziako Nazioarteko Unibertsitatea, Universitat Oberta de Catalunya, Les Eskurtze Zentroa, Kursia Prestakuntza Eskola, Bagabiltza Zentroa, Sartu Gaztaroa, Ibaizabal ikastola, EDE Fundazioa.



Gizartean presente gaude

Dibulgazioa eta foroetan parte hartzea:

- Deustuko Unibertsitatea Medikuntza Fakultatea
- Farmazia Fakultatea
- UPV/EHU
- Bizkaiko Foru Aldundia: Desgaitasuna duten pertsonek parte hartzeko eta haien bizi-kalitaterako plana

Eusko Jaurlaritzak, Osakidetzak eta Apnabi, Argia eta Gazteleku elkarteek osatutako OSASUN MAHAIAN modu antolatu eta aktiboan parte hartzea. Komunitateari buruzko gaiak jorratzen ditugu, Irala, Amezola eta Errekalde auzoetako erakundeen artean espazioak eta jarduerak partekatzeko.

Informazioa eta sentsibilizazioa

214.241

WEBa (IKUSITAKO ORRIAK)

5.742

FACEBOOK (JARRAITZAILE)

4.850

TWITTER (JARRAITZAILE)

2.160

INSTAGRAM (JARRAITZAILE)

4. ZERBITZUAK ETA BABESAK

EA duten pertsonentzako

Diagnostikoaren ondoren, EA duten pertsonak informazioa eta laguntza behar dute. ADEMBIn, profesional talde batek pertsona horiek orientatu eta informatzen ditu, gaixotasunaren inguruko gai guztietan.

ADEMBIk zerbitzu integral eta pertsonalizatua eskaintzen du Esklerosi Anizkoitzaren eragina gelditzeko eta pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko.

EA duten pertsonak arreta emateko, ADEMBIk **Eugenia Epalza Errehabilitazio Integralerako Zentroa** eta **Urizartorre Egoitza** ditu.

Eugenia Epalza Errehabilitazio Zentroa

462

PERTSONA ARTATZEN DITU, HAINBAT TERAPIA
ETA ZERBITZUTARA JOTZEN DUTENAK

15.402

BANAKAKO TERAPIAK

9.745

TALDEKAKO TERAPIAK

152

ETXEKO TERAPIAK

Urizartorre egoitza

Urizartorre Egoitza, Esklerosi Anizkoitza duten pertsonentzako Euskadiko lehena, Bizkaiko Foru Aldundiaren asistentzia-baliabidea da, eta ADEMBIk kudeatzen du.

Urizartorrek **errehabilitazio integralean** oinarritutako arreta-eredua eskaintzen du, EAren ondorioak hobetzera edo minimizatzen eta bertan bizi diren pertsonak etxean bezala sentitzera bideratutako eguneroko jarduerarekin.

1.418 BANAKAKO
TERAPIAK

261 TALDEKAKO
TERAPIAK

Urizartorre egoitzan **integratzaile sozialaren figura sartu da**, egoiliarren aisialdirako soilik den pertsona bat izateko beharrari erantzuteko. Funtzio nagusi hauek ditu:

- **Zuzeneko esku-hartzea**, egoiliarrei zuzendutako **programak antolatu, ezarri eta ebaluatzen dira**, autonomia pertsonala bezalako arlo zehatzetan lan eginez.
- **Jarduera espezifikoak eta espezializatuak** egitea, bai banaka, bai talde-tailerrak edo kanporako irteerak.
- Egoiliarren arteko interakzioa sustatzen duten jarduerak planifikatzea eta koordinatzea.

Taldeko terapiak

Azken urtean, ADEMBIk talde-terapiak sustatu ditu, pertsonengan duten eragin positiboagatik. Talde horiek antzeko egoerak bizi dituzten pertsonekin edo profil homogeenak dituztenekin sortzen dira.

ADEMBIk talde-lanaren modalitate hau eskaintzen du Neuropsikologia, Terapia Okupazionala, Logopedia, Fisioterapia, Uretako Terapia eta Jarduera Fisikoko terapietan.

Zerbitzu horiek pertsona bakoitzarengan zentratuta daude, eta bizi-kalitatearen zapi dimentsioetan ahalik eta parte-hartze handiena izaten laguntzera bideratuta daude. Dimentsio hauek dira:

- ONGIZATE EMOZIONALA ETA MATERIALA
- PERTSONARTEKO HARREMANAK
- GIZARTERATZEA
- AUTODETERMINAZIOA
- ESKUBIDEAK
- GARAPEN PERTSONALA.

Medición

ADEMBIk bere zerbitzuek Esklerosi Anizkoitza duten pertsonen eta haien familien bizi-kalitatean duten eragina neurtzen duen tresna bat du.

Bizi-kalitatearen eredu hau ezarrita, bazkideekin honako ekintza hauekin esku hartzen da

- Prozedurak, tresnak eta adierazleak txertatzea erakundearen informazio- eta kudeaketa-sisteman.
- Bazkide edo erabiltzaile bakoitzarekin esku hartzeko prozedura indibidualizatua (harrera, balorazioa, babesen plangintza, jarraipena eta ebaluazioa).
- Bizi-kalitatearen eskala, ADEMBIk bazkide eta erabiltzaileen bizi-kalitatean egiten duen ekarpena neurtzeko eta ikusarazteko.

Terapiak eta zerbitzuak

INFORMAZIOA ETA HARRERA

Lehen elkarrizketetan informazioa ematen zaie EA duten pertsonari eta haien familiei. Harrera egiten duen pertsona Esklerosi Anizkoitza duen pertsona bat da, eta, ondoren, balorazio bat egiten zaio zertan lagun dakiokkeen ikusteko, eta terapia pertsonalizatuak esleitzen zaizkio, banakako esku-hartze plan bat.

BANAKAKO FISIOTERAPIA

Terapia honen helburuen artean honako hauek daude: martxaren berreziketa, orekaren alterazioak, nekearen berreziketa, autonomia pertsonal eta independentzia funtzional handiagoa, muskulu-tonuaren hobekuntza, malgutasuna eta mugikortasuna hobetzea. Horretarako, teknika eta terapia indibidualizatu desberdinak erabiltzen dira kasu bakoitzean.

GIMNASIA ABDOMINAL HIPOPRESIBOA

Gimnasia mota honek jarrera eta arnasketa konbinatzen ditu. Hainbat jarrera eta arnasketa-teknika hartuta, zoru pelbikoa eta sabelaldea indartzen dira, eta jarrera oro har zuzentzea lortzen da.

ARNAS FISIOTERAPIA

Arnas aparatuko gaixotasunak tratatzen, prebenitzen edo egonkortzen ditu.

HIDROTERAPIA IGERILEKUAN

Egokia da ingurune urtarrean independentek ez direnentsat, muga funtzionalengatik, kognitiboengatik edo uraren beldurragatik. Bakoitzaren behar analitikoak modu pertsonalizatuan lantzen dira.

HIPOTERAPIA

Jarduera hau fisioterapeutek egiten dute, eta zaldiaren neurofisiologian eta biomekanikan oinarritzen da.

LOGOPEDIA

Komunikazioaren, hizkuntzaren, hizketaren, ahotsaren, irenstearen eta entzumenaren nahasmenduen prebentzioan, detekzioan, ebaluazioan, diagnostikoan eta tratamenduan jarduten du. Hitz egitean arnasketa optimizatzen du, ahots-nekea prebenitzeko eta potentzia handitzeko.

NEUROPSIKOLOGIA

Garunaren ohiko funtzionamenduari eragiten dioten edo eragin diezaioketen prozesu neurologikoek sortzen dituzten defizit kognitiboak eta jokabidezkoak ezagutu, hobetu eta konpentsatzeaz arduratzen da.

PSIKOLOGIA

Esklerosi Anizkoitzak portaeran eta aldartean aldaketak eragin ditzake. Psikologia-konsultaren bidez, zenbait aholku, tresna eta baliabide eskaintzen ditugu, horiek kontrolatzen saiatzeko.

TERAPIA OKUPAZIONALA

Terapia Okupazionala okupazioaren bidez osasuna eta ongizatea sustatzeaz arduratzen da. Helburu nagusia pertsonak gaitzea da, eguneroko jardueretan parte har dezaten.

GIZARTE LANA

Helburua pertsona bere ingurunean ahalik eta gehien integratzea da. Horretarako, eskura dituen baliabideei buruzko informazioa ematen du, eta baliabide horiek kudeatzen laguntzen du; etxex etxeko bisitak ere egiten ditu, banakako jarraipen egokia egiteko.

**LAGUNTZA, AISIALDIA
ETA DENBORA LIBREA**

Esklerosi Anizkoitza duten pertsonen gizarteratzea helburu duen laguntza-zerbitzua dugu, errehabilitaziorako, aisialdirako edo autonomia pertsonalaren sustapenerako sarbidea erraztuz.

TERAPIA EXOESKELETOAREKIN

Terapia honekin, ibiltzeko gaitasunari eutsi nahi zaio. Martxa errehabilitatzeko etorkizun handiko tresna.

ERIZAIN-TZA-ZERBITZUA

Pertsonen informazioa eman eta beren gaixotasun-prozesuarekin lotutako informazioa ulertzen laguntzen du. Diziiplina anitzeko taldearekin eta ospitaleetako EArekin unitate espezifikoekin lan egiten du, baita familiakoekin eta zaintzaileekin ere.

PSIKOMOTRIZITATE-TALDEA

Talde-terapia, mugimendua eta gorputz-lana psikologiarekin konbinatzen dituen.

MEDITAZIOA

Eguneroko bizipenak modu lasai eta kontzientean kudeatzeko terapia, estresa saihestuz eta antsietatea kenduz.

**AIRE ZABALEKO JARDUERA
FISIKOAREN TALDE-TERAPIA**

Gaitasun aerobikoa lantzen duen talde-terapia, lan progresibo, gainbegiratu eta indibidualizatu baten bidez. Gaitasunen arabera egokitutako ibilbideak proposatzen ditu, pertsonen beren kabuz egin ditzaten.

ESTIMULAZIO MUSIKALA

Estimulazio musikala garapen kognitibo, motor, intelektual, sozial eta emozionalaren alde musika erabiltzea da. Musika-hizkuntza komunikazio-prozesu baten barruan transmititu, sentitu eta adierazi ahal izateko adierazpide bihurtzea da helburua.

ARNASA-KANTUA

Arnasketa hobetzeko jarduera batean parte hartzea bideratutako terapia da, kantuko teknikak eta ariketen bidez egiten da. Logopeda batek eta musika-ezagutzak eta ahots-teknikek dituen pertsona batek ikuskatzen dituzte saioak.

2024ko Zerbitzu berriak:

TERAPIA TRANSKRANEALA (TDCS):

Tratamendu ez-inbaditzailea, garuneko jarduera estimulatzeko korrante elektriko leuna erabiltzen duena, esklerosi anizkoitzaren sintomak hobetzen laguntzen duena, hala nola, nekea, kontzentrazioa, mugikortasuna, zurruntasun muskularra eta mina.

DIAGNOSTIKO BERRIKO TAILERRA:

Laguntza emozionala eta praktikoa esklerosi anizkoitza duten pertsona diagnostikatu berrientzat, elkarriketa soziosanitarioa eta aurre egite emozionaleko tailerra barne, psikologoak gidatuta. Baita gaixotasunarekin denbora daramatenentzat ere.

ZORU PELBIKOAREN TERAPIA:

Zoru pelbikoaren errehabilitazioa ezezaguna da, eta ADEMBIn ikusgarritasuna eman nahi diogu, gero eta pertsona gehiagok jakin dezaten alde honetan dituzten arazoekin lagundu ahal zaiela. Zoru pelbikoak abdomenaren beheko aldeari eusteko gaitasuna du, eta, beraz, profesionalak eremu horretan egingo du lan, gerrialdearekin eta diafragmarekin batera.

ZALDIKETA TERAPEUTIKOA:

Behealdeko, goialdeko eta enborreko musku-luak lantzen dituen jarduera kardiobaskularra, oreka, orientazioa, koordinazioa, memoria, ulermena eta gauzatzea hobetzen ditu.

NEKEAREN DIZIPLINA

ANITZEKO TRATAMENDUA:

Esklerosi Anizkoitza duten emakumeentzako programa; gaitasun funtzional onak dituzten arren, nekea eta sintoma ikusezinak pairatzen dituztenentzat, esate baterako, mina, alterazio sentesorialak, bertigoak eta sintoma depresiboak. Lau terapia konbinatu ditu: uretako terapia espezifikoa, malgutasun-lana dantzarekin, indar-entrenamendua eta laguntza emozionala nekea maneiatzeko.

URETAKO ENTRENAMENDUA:

Fisioterapeutak gidatutako igerilekuko ariketa, indarra handitzeko, erresistentzia hobetzeko eta koordinatzeko, arnasketan arreta jarrita. Ezin hobea nekea gutxitzeko eta egoera fisiko orokorra hobetzeko, igeri egiteko tekniken eta urperatze-ariketen bidez.

PARTE HARTZEKO ESPAZIOA:

Parte hartzeko gunea bazkide batzuen eskaerari erantzuteko sortu zen, eta urte batzuetako ibilbidearen ondoren, formatua birplanteatu egin da. ADEMBIko bazkideen esperientziak eta jakintzak partekatzeko borondatea duen partaidetza-espazio bat birdiseinatu da, gaixotasuna duten pertsona guztien onurarako proposamenak eraikitzeko.

Parte-hartzaileek aukeratutako gaiak jorratzen dira. 2024ko saioetan, honako hauek landu dira:

- TAOren araudi berria
- Sintoma ikusezinak

Bazkideek modu aktiboan parte hartzen dute ADEMBIren Ideia Bankuaren bitartez, non profesional batekin batera ideiak zuzenean eman ditzaketen. Prozesu horri esker, ahalik eta gehien aprobetxa daiteke ADEMBIko komunitate osoaren ezagutza kolektiboa, eta, aldi berean, etengabeko hobekuntza ahalbidetzen digu, erabiltzaileen behar aldakorretara egokitu-ta. Ondoren, ADEMBIko berrikuntza-taldeak prozesu horretan ateratako ideiei emango die lehentasuna, eta, horrela, proposamen oparoenak eta erakundearen helburuekin bat datozenek beharrezko arreta jasoko dutela ziurtatuko da.

5. GIZARTE-ERAGINA

Esklerosi Anizkoitza duten pertsonei beren bidean laguntzea da gure helburua, eta gure misioa beraien bizi kalitatea hobetzea.



Gure berdintasunarekiko konpromisoa

ADEMBIk berdintasun-plan bat du, tratatu- eta aukera-berdintasunerako politikak ezartzeko eta gartzeko konpromiso gisa, sexuagatik zuzenean edo zeharka diskriminatu gabe, bai eta enpresaren funtzionamenduan eta antolamenduan benetako berdintasuna lortzeko neurriak bultzatzeko eta sustatzeko ere, emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna gure politika korporatiboaren eta giza baliabideen politikaren printzipio estrategikoetakotzat ezarriz.

Euskararen aldeko konpromisoa

ADEMBIk euskarak elkartean duen presentzia eta erabilera maila egiaztatu zituen Hizkuntza-irizpideen lanketari jarraiki. 2024-2027 urteetan, euskararen erabilera sustatzeko Plan Estrategikoa landu da, erakundeko arlo guztietan euskararen erabilera sendotzeko asmoz.

GJH Garapen Jasangarrirako Helburuak

ADEMBIk lanean jarraitu du, bere jarduerak Garapen Jasangarrirako Helburuekin bat egiteko. Ekin-tza espezifikoak inplementatuz eta helburu berriak lehenetsiz, erakundea ondo kokatuta dago 2030 Agendan modu esanguratsuan laguntzeko, bai bere jardueraren eraginagatik, bai jarduerarekiko konpromisoagatik.

ADEMBIREN LEHENTASUNEZKO GjHak:



Berrikuntza

ADEMBIn berrikuntza lehentasun estrategikoa da. Esklerosi Anizkoitza bezalako gaixotasun batean, hain aldakorra eta oraindik ezagutzen aurrera egiteko asko duena, heltzeko ikuspegi berriak eta berrikuntza funtsezkoak dira.

ADEMBIn, berrikuntza Esklerosi Anizkoitza duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzera bideratuta dago, eragin positiboak gerta daitezen.



6. ALIANTZA ESTRATEGIKOAK

Las alianzas contribuyen a los siguientes objetivos estratégicos de ADEMBI:

FINANTZAKETA — ESKUBIDEEN DEFENTSA — ESTRATEGIA ARRETA SOZIOSANITARIOAREN KOORDINAZIOA HOBETZEA IKERKETA — BERRIKUNTZA — KUDEAKETA — DIBULGAZIOA.

Aliantzek ADEMBIren helburu estrategiko hauek lortzen laguntzen dute:

- Diputación Foral de Bizkaia
 - Ayuntamiento de Bilbao
 - Gobierno Vasco
 - Osakidetza
 - BioBizkaia
 - Biogipuzkoa
 - Euskalit
 - tecnaia
 - Universidad de Deusto
 - UPV
 - RIMS
 - IMSAC

International MultipleSclerosis Advisoy Council

 - Fundacion Susana Monsma
 - Fundación Víctor Tapia
 - Fundación Damas de Gorliz
 - Fundacion Once
 - Fundacion Carmen Gandarias
- (Rehabilitation in Multiple Sclerosis)

 - Colegios Oficiales
 - Evol rehabilitación
 - Virtualware
 - Fekoor
 - Avifes
 - Asociación Síndrome de Down
 - Lantegi Batuak
 - Bizkaia Gara
 - Bidaideak
 - Apnabi
 - Aemar
 - Fem Madrid
 - Argia Fundazioa
 - Bultzatu
 - talleres Usoa
 - ADemgi
 - Fem Barcelona
 - Inbiku

Ikerketak eta proiektuak:

BIOBIZKAIA

Esklerosi Anizkoitza duten pazienteen martxa errehabilitatzen terapia robotizatuek duten eraginkortasunari buruzko ikerketa diseinatzen eta gauzatzzen laguntzen du. Eksogt™ Lokomat®-en aurrean.



IMSAC

ADEMBI Ameriketako Eksobionics enpresaren International Multiple Sclerosis Advisory Council erakundearen parte da.

